

Batzuetan, (ia) sumatu gabe gertatzen dira aldaketak nire gorputzean. Beste batzuetan, aldiz, agerikoagoak dira, nabariagoak, begi-bistakoagoak, neurgarriak. Bizitzan gertatzen diren aldaketa horiek neure burua ez ezagutzera eraman nazakete. Nola ikusten dut aldatzen ari zaidan gorputza? Nola konpontzen naiz *ni* aldakor honekin? Harriduraz hurbiltzen al naiz aldaketetara?; jakinminez? Sexologiatik eta ginekologiatik abiatuta, lagungarriak izan daitezkeen ideiak emango ditugu klimaterioko aldaketak ulertzeko eta emakume bakoitzaren gorputzean nola gauzatzen diren zehazteko.

Nor naizen hausnartzeko espazioa da hau: zerk egiten nauen berezi, zein diren nire proiektu pertsonalak eta bikote-proiektuak, zein diren nire nahiak eta irrikak.